

EVSKO-ALGIK




EVSKATZAEAK

SANTUARIO DE ARÁNZAZU
BIBLIOTECA

Estante 17

Tabla 7

Número



EUSKO ALEGIAK

Eusko Pizkondeak ikutzen duan
guziari eusko kutsuba eransten
dio.

Baita liburuen azaleei ere. Ala
gure gaurko oneri ere.

Alegi-Idaztiak Jupiter'en eredia
pizti eta abereen jaungoiko-txiki
bezela dakarkite.

Guk bestela, ordea. Bai-baitegu
eusko basoetako gure jaungoiko-
txikia: Basojauna deritzana.

Basojaunaren menpean, ba, ipini
ditugu euskotafei ezagun zalzkio-
ten abere, pizti eta egazti befitsuak.

Onelaxe liburutxo onek azaletik,
ere, eusko kutsua eraman dezala.

EUSKALTZALEAK.



N- 17594

R- 39284

ATV
5.840

EUSKO ALEGLIAK

Zabala'tar Matai

Ariztimuño'tar Joseba'ren

ITZAUREA



1934

“EUSKALTZALEAK”

DONOSTIA

EUSKO ALEGILARIA

Antziñako olerkaria ezagun-araztea

Auxe dezu, irakurle, « Euskaltzaleak » en elburuetako bat: aztu zaizkigun idazle zañen izenak beñiro argitaratzea euskeltzaleen ezaungari izan ditezen.

Urteoro olerkari gazteen bertsoak liburutxo berezietan bildurik euskeltzaleei eskeintzen dizkiegu; antziñakoenak ere, orobat txukuntxo irañirik, urteoro izan ezik, al-degunean beintzat eskeiñi nai genizkioteke.

Ernani'ko Eusko Olerti Eguna zala-ta Ituriaga'tar Agustín alegileari egin geniokan gorazatea ospatzearen, ernanitar olerkari onen ipuiak liburu batean eskeiñi genituen.

Oraingoan, Zarautz eta zarauztañak ditugu omenaldiko gai. Itxas-baztañeko uri ortan aurtengo V Eusko Olerti Eguna; zarauztañ « Lizardi'tar Xabier » zanaren omenez eratuak eusko olertiari buruz gertatutako yaiok.

Beste izen bat aizetu beaña ere ba-degu. Ez gaurkoa, antziñekoa baizik. Zarautz'ko Pranzizkotañen konbentuan ainbat urtean bizi izan zan euskeldun idazle eta olerkari zitzaigun Zabala'tar Matai prailea.

Oñentxeren abere-alkañizketako bertsoak, alegiak, dakarkite oñialdiok.

Zabala alegilaria nor ote zan?

Bilbao'taña sortzez. San Anton'go eleiza nagusian baitaiatua 1777'ngo agoñilaren 21'an. Ondo bizkaitaña alaere;

yatoñiz, gurasoen gurasoak ere Bizkaiko eñi txiki askoe-
tatik zekarkiten sustraia.

Bilbao'taía, beraz, eta euskeldun utsa zitzagun ba Za-
bala olerkaria. Gazterik, ordea, munduaz okiturik zeru
bidetik yo zuan. Amabost urterako Bizkai'ko konbentu
bazter bateren-batean ezkutatu zan. Ordurako latiñera
ondo ikasia, mutil azkañari zegokion bezela.

Adimen biziko ikaslea noski, ogeitabat urterako eleiz-
bañutiko izlari izateko egokia iritzi zutenean, nunbait.
Buruz ondo-ederki yantzia bai-zegoan. Pilosofiko irakasle
berealaxe izendatzea añitzekorik ez orduan ba.

Napoleon'en guradosteak atzekoz-auñera nastutzeko
añña baziran, gure Gipuzkoa onetan ere. Praileak ezkutatu
beañ izan zuten. Gaztaroan asitako nekeok zartzaroan
ere yasan izan zituan Zabala lekaideak Zarautz konben-
tuko buru izanik « beltzak » zirala medio. « También nos-
otros hemos tenido nuestro trabajito,—zion 1840'ngo—
ilbeltzeko—16'an.—Yo he sido conducido dos veces a
Guetaria entre bayonetas, y tenido allí en clase de preso
con centinela de vista, por estar este pueblo insolvente
en sus contribuciones ; otras dos, por medio de oficio, y
tratado con menos rigor. Dos veces ha sido saqueado el
convento por los cristinos en las irrupciones que hicieron
desde Guetaria.» (1)

Gauzak paketu ziranean Zarautz'era, eta bertan eriotz
ordurarte iraunkor bizitzeko, 1815'gañenean etoñi zan.

(1) Cfr. Apéndice bibliográfico. L. de Lezama Legulzamón. Re-
vista de Estudios Vascos. 1924. 347 of.

Zarautz konbentu isila bizi-leku, Bizkai'ko eñiak lan-soro ordea. Mixiolari sutu, izlari gartsu or ibili zitzaigun Zabala aita euskotañen, eta batez era bizkaitañen, siñismena sendotzen.

Biritan menpekoak konbentuko buru aukeratu zuten. Bigañen aldian izendatu beñia zala betirako praile zintzo eta euskeltzale azkar eta sutua il zitzaigun 1840'gañen urtean bere bizitzako irurogeieta-iru-gañenean.

Euskeltzale leñatsua

Guk idatzi dezakeguna baiño Zabala berak bere buruarengandik diona egokiagoa deritzait euskerari zion zaletasuna agertzeko. Etzan ain gazterik beste amaikatxo kirten bezela ajolagabetsu izlari izateari lotu, ez. Txikitatik zekien euskera sakonkiro beñ ikasi zuan, aditza batez ere, bere itzaldietan izkera yaio erabili zezan. Eñiz-eñi zebilenean ere euskera aberasteañen ardura aundiaz itz eñikoiak yasotzen zituan iztegia egiteko asmoaz.

Utzi dezaiogun Zabala'ri izketan :

«Desde que en 1803 leí la nunca bien alabada Apología del vascuence de D. Pablo Pedro de Astarloa, concebí vehementes deseos de ver su arte que en élla se nos prometía, y saber cuáles fuesen los once modos de su verbo, cuáles los tensos de ellos, y cuáles, en fin, otras particularidades que allí mismo se mentaban. Ya para aquel tiempo había tenido yo que dedicarme al estudio

reflejo de este idioma, para poder satisfacer a los empleos del púlpito y confesionario, a que iba a ser destinado por la obediencia, a causa de que me había entorpecido en él durante la carrera de mis estudios hechos en pueblos castellanos. Sus bellezas, que había leído en el P. Larra-mendi, y que yo mismo había experimentado en su conjugación, me habían prendado el corazón, y lo que principié por necesidad, se me convirtió en objeto de afición, y una vez hechizado con la hermosura de su atrio y antesalas, anhelaba vivamente por ver sus salas y gabinetes.

«Mientras se publicaban las obras del apologista, entretenía mis ardientes ansias con la lectura, ya de la mencionada apología y las obras de Larra-mendi, ya con la de los libros bascongados de los tres dialectos, ya con las observaciones que yo mismo progresivamente hacía al oír hablar a los bascongados, y ya finalmente con algunos ensayos sobre varios puntos contenidos en la apología sobredicha.

«Seguía de esta suerte en mis gratos entretenimientos, cuando por Abril de 1821 prediqué la misión en la ante-iglesia de Abadiano del Señorío de Vizcaya, y su Beneficiado y Cura D. Víctor de Ibargoitia me fió un manuscrito del mismo Astarloa, que aprecié mucho y cuyo favor aún recuerdo con gratitud. Contenía éste las 78 (el impreso pone 84) conjugaciones (*del presente de indicativo de la voz activa*, añade también el impreso) con sus 304 artículos, la mayor parte de los de su pretérito imperfecto, parte también de sus dos imperativos y finalmente

los encabezados del subjuntivo: y él, aunque imperfecto, me dió luz para atender cómo son las 103 conjugaciones activas y mixtas del verbo bascongado manejado activamente y para distinguir el subjuntivo del plenitudinario. He aquí las fuentes de que me he servido en el estudio de la conjugación bascongada.

«Este mi estudio no ha sido ciertamente de tarea y ocupación, que fuera incompatible con los empleos en que me ha ocupado la obediencia, sino de diversión y recreo, y cual suele ser el de un hombre acomodado que dedica sus ocios y ratos intermedios al cultivo de su jardín; pero ha sido diuturno y continuado, como que hace más de 32 años que lo comencé (en el original para el impreso decía 38) y jamás lo he dejado sino en los casos de imposibilidad» (1).

Bere adizkide eta lagunen liburuak argitaratzen, konbentuko buru zanean, zintzoki saiatu zan. Zabala'ri eskerak Tolosa'ko Lalama irarkolan azaldu zituzten Añibaño aitak « Esculiburua », irugañen aldiz ; « Ongi bizi.... ta iltzeco laguntza » Etxebeña aitak bigañen aldiz, eta lenengoz beronen Kenpis'en itzulketa.

Euskel idazlea

Yolas antzean, alegia praile bezela zitzaizkion lanak arintzeko edo euskel gaietara gogoia atsedentzeañen yo-

(1) Cfr. «El verbo regular bascongado» del dialecto vizcaíno por el P. Mateo de Zabala, Misionero..... San Sebastián. Imprenta de Ignacio Ramón Baroja. 1848. Prólogo, § primero.

tzen omen zuan. Ara nolakoxe lantxoak euskel-gaiz idatzi zituan, Larínaga'tar aitak dionez. Idazki oetatik batzuk, oraindik, Zarauz'ko Prantzizkotañen konbentuan aurkitzen dira, beste batzuek beñiz galduak izaki, nunbait :

1. «Tabla comparada de las conjugaciones vizcaínas y guipuzcoanas».

2. «Colección de voces vascongadas oídas en las misiones de Vizcaya».

3. «Otra colección de voces y frases, sacadas de varios autores».

4. «Enmiendas y adiciones a la obra «El Verbo Bascongado ».

5. «Correcciones a la obra « Urteco Domecac ».

6. « 103 conjugaciones del presente perfecto de indicativo en el dialecto vizcaíno, o muestra de las 206 del presente indicativo ».

7. «La Parábola del Hijo Pródigo en vizcaíno, guipuzcoano y labortano».

8. «Tipo completo de la conjugación cantábrica». (1)

Aitatutakook irañigabeak dituzu; oraindik Zarauz'ko konbentuko liburu-aretoan ezkutatuak daudenak Zabalak eskuz idatzita utzi zituan bezelaxe.

Ba-dira, ordea, argitaratuak ere. Bata entzute aundiko «El verbo regular bascongado» idazburutzat daramakiana. Yakintsuak ontzat artutako idazkia. Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak bere kontura argitaratutakoa.

(1) Cfr. Juan Mateo de Zabala, por Fray J. Ruiz de Larínaga. Revista Internacional de Estudios Vascos. 1924, 69 of.

Bestea, beriz, «Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de la que cuenta el P. Larra-mendi», Donosti'ko Baroja etxean irafia.

Aizkenaz, guk oraingoan argitara dakarzkigun

«Fábulas del dialecto vizcaino»

Alegiok Zarautz'en idatzitakoak ziran, baiña Paris'ko «Bibliothèque Nationale»ko bazter batean Azkue yaun ospetsuak aurkitu zituan. D'Abbadie euskeltzale zintzoa nunbait alegi oietzaz yabetua zan eta bera ildakoan Paris' era igofi zituzten.

Azkue yaunak aurkitutakoan «Revista Internacional de Estudios Vascos» aldizkingian argiratarazi zituzten 1924' gaen urtean, Mogel'en beste alegi batzuekin naasiak.

Gaur, ordea, lenengoz bereziki eratuta Zabala'ren alegiak liburutxo batean garbi taiututak dakarzki «Euskeltzaleak».

Ogeita lau dituzu alegi guziak, Mogel eta Salabeñia'renak kendurik (1).

Zabala'k sortutakoak ote ditugu guziak ?

Alegi gaietan irazailē gutxi. Nor bera sortzailē eskax goi-mailako alegilaria izanagatik. Esopo'k, sorkaldeko alegi erikoietatik bere olerkietako gaiak artu zituan : Fedro'k Esopo gerkatafaren alegietik; La Fontaine, Sama-

(1) Zabala'k bere alegiei ipiñitako itzaufetxo batean dio:—«Ogeita bat dira neureak...» eta «El Verbo regular vizcaino»ko idaztlan beriz: —«Yo tengo formada una pequeña colección de doce fábulas ajenas y veintitantas más...» Baiña ogeita lau dira Zabala'ren alegiak eta ez ogeita bat, ba Mogel eta Salabeñiarenak kendu ezker, bere ezkuz idatzitakoetan ogeita lau gelditzen zaizkigu.

niego, Iriarte eta beste ainbat alegilarik antziñekoetatik, beñiz.

Ala gure Zabala'k ere. Irudipen aberatsekoa zan, ordea, olerkari bizkaitar au zeken eta lañu goñik besteren gaiak euskerara itzultzeko. Batzuetan, alegilari arotzak laburkiro zekarzkitenak Zabala'k narotsu euskeratzen zituan. Bere olerkiak bertsoz oparotsuak, itzez aberatsak, esakeraz iaioak eta aditza erabiltzen bikaiñenetkoak ditugu.

Zerbaitetan zedoñek Zabala alegilariaren kera nabaitu dezazun, argi bidez, Esopo, La Fontaine eta Zabala'ren alegiak diyoazkizu :

Lenengo: Esopo'rena, gerkeratik itzulia,

« La zorra y las uvas »

«Quiso una zorra hambrienta, al ver colgando de una parra hermosos racimos de uvas, atraparlos con su boca; mas no pudiendo alcanzarlos se alejó diciéndose así misma :

« — ¡ Están verdes !

« Así mismo, ciertos hombres que no pueden llevar adelante sus asuntos por culpa de su incapacidad, culpan a las circunstancias. » (1)

Ots! begira, ia aldatubarik, La Fontaine'k prantzezera nola itzuli zuan Esopo'ren alegia:

(1) Cfr. Fábulas completas de Esopo, Fedro, La Fontaine, Iriarte y Samaniego, Librería Bergua, Madrid 1934. Tomo I, 27 of.

« La zorra y las uvas »

«Cierta zorra gascona, otros dicen que normanda, de hambre, casi muerta, colgando de una parra vió unas hermosas uvas, cubiertas de pellejo bermejo. ¡Gran banquete se hubiera dado la bribona! Pero no pudiendo llegar a ellas dijo:

« — ¡Puah, están verdes! ¡Quédense para los gañanes!

« ¿ Qué mejor podía hacer que desdeñarlas ? » (1)

Ikusi, orain beñiz, Zabala'ren itzulketa. Labur bideak utzita lasai, euskerari dagokion bezela, gai berauxe neurtitzetan ibili zigun :

Azeri mats - gurea

Lukia baten yoan zan mastuira
egozanean dingilizka mordak.

Aitu-ezkero, diño : — Ai begira,
eta ze onak !

Oraingo onetan beintzat, bear yoat
ase ta bete nik sabel gosea.

O ze eguna ! ene mats-mordoak !
gaur bai neurea !

(1) Cfr. Fábulas completas de Esopo, Pedro, La Fontaine, Iriarte y Samaniego. Tomo I. 298 of.

Abiadu da. Gero nondik nora
ekingo deutsan mats aek yateko ;
oraingo saltuka egiten dau gora
aoa artzeko.

Gero atzeko oin bien ganean
zutunik yaí, ta agaitik atxina
igo nai leuke. Zer da azkenean
ak ez egina ?

Bein eginari gitxi eretxirik,
beste askotan abantetan yako,
indaíak, putzak baíro usturik
aíapetako.

Guztiz alpeírik izan zan; oírenbat
eze egin-alak ta ezin-eginak
emon-ezkero, ez dau ez lakain bat
ostu aginak.

Ostean gero gure lukitxuak
matsai begira epe doiloíean :
—Ez dozak gauza, ez dozak elduak
esaten euan.



*Berein onango gizonen artean !
zerbaitegaitik buruak uratu,
al dana egin, t'ezin dauenean,
atxakiatu.*

Alegilariak irazaile ote?

Ez deritzaigu ogeitabat alegi oetatik Zabala'renak yatoriz diranik, agian, bat edo beste ez izanik. Baliteke berea «Madril'go itsu bañi zabaltzalak»... Hartzenbusch alegilariarena ez ba-da, noski.

«Zaldi aroa eta asto apala»k Samaniego'ren «El asno y el caballo» rekin anaitasuna du: (1) «Agure gogaitua ta balbe txarā»k La Fontaine'ren «El leñador y la muerte» rekin (2) eta Samaniego'ren «El viejo y la muerte» rekin: (3) «Osagila, gaixoa il ezkeroz eremedioa esan euana»k Esopo'ren «El médico y el enfermo»rekin (4) eta Samaniego'ren «El enfermo y el médico»ekin: (5) «Ezkongea eta emaztegei biak, gaztea ta zar-nastea»k Fedro'ren «El hombre con dos amantes» ekin (6) eta La Fontaine'ren «El hombre entre dos edades y sus dos amantes» ekin: (7) «Asto nekeak amaitua ta ila, ta zaldi biotz gogoña»k Esopo'ren «El caballo y el asno»zekin (8) eta Samaniego'ren «El asno y el caballo»rekin; (9) «Leoiartz auska indargetuak, ta lukia»k Esopo'ren «El león, el oso y la zorra»rekin.... (10)

(1) Cfr. Fábulas completas de Esopo, Fedro, La Fontaine, Iriarte y Samaniego. Librería Bergua. Madrid, 1934. Tomo II, 222 of.

(2) Cfr. Ibid. Tomo I, 271 of.

(3) Cfr. Ibid. Tomo II, 244 of.

(4) Cfr. Ibid. Tomo I, 69 of.

(5) Cfr. Ibid. Tomo II, 244 of.

(6) Cfr. Ibid. Tomo I, 186 of.

(7) Cfr. Ibid. Ibid. 271 of.

(8) Cfr. Ibid. Ibid., 72 of.

(9) Cfr. Ibid. Tomo II, 263 of.

(10) Cfr. Ibid. Tomo I, 97 of.

Alegilarien artean legezkoa da nunbait antziñakoen arobitik gaiak artzea. Ez dira ere lotsatzen batak besteari aitortzerakoan. Onela zion gure Samaniego ospetsuak' euskotar yatoñizko beste alegilari bateri, Iriarte'ri, bere ipuiñak eskeintzekoan :

«Yo te imito: no invoco a las deidades;
Y por mejor consejo
Sea mi sacro numen cierto viejo:
Esopo digo. Díctame machucho
Una de tus patrañas, que te escucho.» (1)

Samaniego'k alegiak lenengoz argitaratutakoan bere buruari ipiñi zion itzauñean dionez, La Fontaine'ren olerkiak azterturik geitxoenak Locmano, Esopo eta beste antziñeko alegilarietatik itzuliak zituala aitortzen du. Oek eta beste batzuek ere irakasletzat arturik, Samaniego euskotarak aiengandik makiñabat gai artu zituala berangatik ere dio.

Ala gure Zabala'k ere. Baiña alegi oiei eusko - kutsua erantsi zion. Bertso érezetan oparotsu ipuiak adierazten dizkigu. Ain érezki bertso-doaia gure artean izan duanik gutxi noski.

Aisatasun onek eta euskeraganako maitetasunak eragin zion alegiak idazteko. «Nok esango eustan neuri,—zion,— ipuiñ-giñan egingo neuala? Nik beintzat ez neuntsan sinistuko asko. Alan da guzti makalaldi baten, beste gauzata-

(1) Fábulas de Samaniego, en verso castellano. Madrid. Imprenta Jordán. 1832. 101 of.

rako ez nintzanean prestu, eta oean besteetan baiño asti-roago egon bear izaten neuanean, ene atsegingaíirako uste ez neuan eginen oneri eutsi ta ekin neuntsan eta neureak geienak (alegiak) orduantxe egiñak dira.... Baakit nik geure euskaldunak ipuintzaleak direla. Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun geroazan aoa zabalik eta aduía erigula, Peru eta Mariaren ipuin sustraibaakoak.... Nik gura neukena da ze, oneetatik bidea artuta, edo ainbaga-koan, nik baiño buru, gatz, asti ta gogo obea daukanen batek geiago eta ederágoak egin balegiz.» (1)

Etzaigu, ordea, alegi gaietan Zabala baiño olerkari yaio-gorik yaio. Bere aiñekorik ez degu eduki. Idazle bezela gure izkera sakonkiro ezagutzen zuan. Ba ditu bere akatsak; baiña olerkiok darioten irakaskintza bikaiñeneta-koa degu.

Eder-irizle gorengo, Azkue yaunak, gai oneri buruz dio: « Los autores que más fenómenos fonéticos han mostrado en sus escritos son bizkainos.... en especial los religiosos Franciscanos Añíbarro y Zabala, castizos de lenguaje fluído, y seguramente, por su estilo los más recomendables de cuantos han cultivado este viejo dialecto. *Seria una lástima que no se hiciera un librito con las 36 fábulas de este último... De prólogo podrían muy bien servir datos biográficos del sesudo fabulista y gramático bizkaino.* » (2)

(1) Cfr. Revista Internacional de Estudios Vascos. Tomo I. 1907. 89 of.

(2) Cfr. Crónica del Congreso de Estudios Vascos de Oñate. 1918.478 of.

Ara, Euskaltzaleak asmo eder oiek bete. Liburutxoa, auxe da : irakurtzen ari zerana. Baiña Zabala'renak ez dira 37 alegi, 24 baizik. Besteak Mogel'enak dituzu. Guk bilbotar prailearenak bakarik argitaratzen ditugu, Zarauz'ko Udalari eskerak.

Alegien asieran Zabala'k neurtitz oietxek ipiñi zituan. Beroiekin amaitzen degu itzaurea :

« Bizkai'ko erietan
gara euskaldunak ;
egin dezagun bada
euskeraz bertsoak.
Ez dogu euskaldunak
erdera bearik,
bertsoak imintzeko
ondo apaindurik.
Euskeraz kantateko
prest nago ni beti,
bizkaitaren legea
ez galtzeagaitik.
Ezin itzi giñaike
Bizkai'ko lurrean
euskeraz kantatea
ondo yakunean. (1)

ARIZTIMUÑO'TAR JOSEBA.

(1) Cfr. Revista Internacional de Estudios Vascos. Tomo I. 1907.
90 of.

IPUIÑEN AUÑEKO YAKIN - BEAÑA

Eguno ez daue
abere mutuak
ta pizti uzuak
egin berbarik bapere.



Diñogu dauela
au ta au esan,
erakusteko orlan
geuk egin bear doguna.

Ama-alaba, kardantxiġo eder kantaria
miruak ilten ikusiak

Kardantxiġoa, emea abian
egokanean berotzen
arautzatxoak, bera galian
aurerko zugazto baten
kanta ta kanta
dago, eztanda
egin bearez soiñutzen.

—

Ain zan edera luma nabeaz
ta ori-gori guztikoz,
ze ama-alabak ao zabalez
ari begira dagokoz ;
euren zentzunak,
agan etxunak,
dituez pozaren gozoz.

—

Amak neskari: —Potxo maitea,
eztantzun aren soiñua ?
zoragarria aren samea
zoragarria kantua.
Ai, ze polita
geuk ikusi ta
ya intzunagun txoritxua !

—Ai ze polita ! —darauntso amari
neskatxi ořek urturik.

—Ai ze edeřa ! Ezin geuk ari
esku-ezaři, ta arturik
erôn gurera
an eukitera
kaiola baten sarturik !—

—

Egozan alan ama-alabak
ero-ero txoriagaz ;
bařiz onetan miru itzalak,
zerutik yatzirik egaz,
zart txoriari
erpak ezaři
ta dau igesten beragaz.

—

Ez dituz ainbat gauzak balztuten
gau ilunaren iluntzak,
zein da miruak dituz iluntzen
ama-alaben biotzak,
kendurik ari
txoritxuari
edeřa, sama, bizitzak.

—

Beren-berengi neskak damuaz
ez euan, ez, asko bear
antxe egiteko txorienagaz
taska taska, negar negar,

begi bereak
urez beteak
damuz biotza samur lar.

Amak orduan ondo esanezka
dirautza bete-betea :



—*Aikon ementxe garbiro, neska,
emengo poza zer donan :
orain bizirik
puntuo ilik.
Gozoak ala parean.*

ZALDI AROA TA ASTO APAIA

Zaldi aroa bitxiz ta zirañez
tint apaindua, yabea ganean
eukala, yoian ibilte galantez
bere bidean ;
onen betea daroa burua,
baita an dago buru-eretzia,
ze, zabal dala,... datorko estua
bide guztia.

Astoa bañiz azuruts, goseti,
buruz berarik, araiñen azpian
etoñen geldi aurreko bideti
bere andiran.

Zaldito putzak, buru yagiagaz
ifintz eginik, zearka begira,
bete-betea ta abrigu txaragaz
dirautsa : —Gira !

Asto ikuski ta lotsa bakoa
niri bidean ez egin aldera ?
Bada ostikoz.... Ken laster ; ken ; oa
bide-munera !

Asto gaixoak bilduraren nekez
daki ez nor dan, ta konor guztiak
yoanik daukaz, yo ba-leuan legez
oiñaztañiak.

Zan andik ara bulañez idigi
zaldia ; eta jaunak satz-lofean
galdu zalako, apaiñak edeki
ta agindu euan.

Gerora astoak zaldia zamari
eginik dakus ta aroa zimaurdun
eta dirautsa gaistoz makalari :

—Agur, o lagun !



*Ea, gizona, egiten badozu
geriz apur bat, ez aŕen aŕotu ;
nornairi berba gozo egiozu
ez ostikotu.*

AZUAÑA TA LUKI MIN - ARTUA

Bein azeria
plaust yausi zan
sasi ganetik
egitean.
Yausteko orduan
eutsan eutsi
ango azuar
gogor bati.
Ta min arturik
biraoka
asi zan, asi,
Kristok oba :
—« Zein azan gaisto,
zital, txaña !
Bere esturan
ire eskua
ta bein eskatu
yakanari
euk, txar, uratu
ta eratzi.
Aren ta nilak
orain, beti
erôngo al aue
an ta guzti ».

Arantzak bañiz
bake-bakez
erantzun dautse
berba onez :
« Ez, ez añenik
niri egin;
ik dok eñua
ein ba-yak min.
Ik aitu bear
endun ondo
nori oratu
ez yausteko.



*Onik ezingo
bategana
ba-oa, ona
eskatzera,
nok yok eñua
ezpada euk ?
Ezer eñurik
ez yaukat neuk...»*

Ugazabandra eragingilegia, eta neskatila
otsein oilar-iltzailak

Etxe bateko andrea
zan bada guztiz kirmena
begiratu ta mena ;
berba baten : egilea.
Erabilen ak etxea
laégiz ondo aitua ;
beáean zan urtua ;
eta otseñai lanerako,
oiláak yo ordurako,
egiten eutsen oiua.
Neskatilak, gogaiturik
óren goiz yagi beáez,
diñoerdi asaéz :
—Zer ; ta loa erditurik
ta bein ez bein osoturik
beti geuk yagi bearko ?
Au ta, nok aturateko ?
Ez bada ; guzuía, abaía ;
ilgo yonagu oilaía
bai, bai geure bakerako.
Esan ta egin ; ilten daue ;
ta iñok ez igarteko,
luki gaistoa yateko

egingo yakala yabe
zabalduta, oilar gabe
andra ori da gelditu.

Neskak pozak artu ditu
lo ta lo egitekoan.

Alperik neskak : sasoan
andrea oi don igitu.

Ugazabandreak bada
zelan eztaukan oilarik,
amaiketan bagarik,
ta goixago bear bada :

—Mari, diño, ta txagada
ordu da ; ea ta yagi
Nagi zagoze, ta nagi
al zagoze izerditan ?

Dei eginda, lau ofitan,
yagi bearko don, Mari.

Aror bada, otseintxuak :
on ekañi beañean
buruari, kaltepean
parau dituez buruak.



*Zeinbati onrak, diruak,
osasuna izateko
eginak ! ai ! okeñeko
guztiak deutsez lortuak !
Zuk gazatxu arazuak
munduan ondo egoteko.*

AÑANTZAIĒ USTE UTSETAKOAK

AñaintzaiĒ zintzoak
ibaian traiña
ezañi euenean
artzen añaña
pozez alkañi :
—Bear dogu,—zirautsen,—
beteta ekañi.
Aldi zanean gero,
sare leuna
atera gura daue ;
dago astuna.
Au poz zoroak !
bir miña añañ beuela
ta igaroak !
Diñoē : —Ei, gazteak !
gaur bai dirua
zorionez yoagu
ziur artua !
Gaur zagiari
ekin bear yeutsagu
o pozkalari !
Datoz geldi munerantz,
ta ondo pozik
bear-lanak eginik
gogo-gogotik

—Mutilak, ea!
lanak yakak dirua
onek besteak.

Asten da agertuten
geure sarea;
agertu da erdia,
urten bestea....
Bai ta afañak?
Onek uretan, eta
aři bat traiñak.
An zan iluntasuna!
biotz zauria!
eta pozez len zana
orain yausia!
Ozta berbarik
egin gura ei eutsen
bat besteari.



*Eztakutsu onetan,
ene semea,
munduaren eгина
ta guzurtea?
Asko agindu
ta bařiz emotean
labur gelditu.
Yainkoa da bakařik
esanekoa;
bein agindu dauena
a emongoa.
Beste guztiak
uře-mendiak esan;
emon? ařiak.*

Erobi bizitzeaz gogaituak eta ugaraxioak

Erobi batzuk baten
eginik batzaía
—Ai bada,—ziñoen—
geure zoritzaía :
geu beti bilduñez,
beti geu ikara,
bein ez gaituk bake onez.
Oírelan, nor bizi
onen bake galduz ?
gizonak bateti
lakioz eta suz ;
txakurak ausika
atzean yafaituz ;
otso, lukiak geu ilka.
Alan ibilteko
oba yoagu il ;
ta azken emoteko
neke ain ugaril,
ta ain gogor ganera
yatorkuanari,
geu ta lanak uretara !

Esan ta egin. Doaz
urari emoten,
buruak itoaz

nekeak itoten.
Munera aik eldu,
ta ugaraxioak
an plast zirean muixatu.
Auxe ikusirik,
diñoe : —Gazteak,
ez gozak bakañik
gu nekepekoak.
Gaioazan alon
atzera ; ta lanik
ba-yoagu, egon, egon.



*Nekepean danak
obeto danari
aitu, eta lanak
eiten yakoz azi ;
bañiz begiratu
txartoagoari,
damuak dira laburtu.*

Agure gogaitua ta balbe txara

Agureak
ozta-ozta
eroian egur-sorta ;
ta nekeak
erasota,
diño : —Ai eriotza !
Non, non ago ?
ator laster
gaixo au eroaten ;
nik gurago
yoat, eder,
il bere bizi baixen.
Ar'or bertan
balde txara
bere begi aurean
imini zan,
ta dirautsa :
—Zer gurok nik yaiadan ?
Ez besterik (zarak laiz)
ezpada yasotea
au lu'etik ;
gero bariz
auretik eu kentzea.



*Zeinbat, zeinbat
biraogila
artzen dituz ipuiñak !
Kalteren bat
eskatu, ta
badatoz, an negarak.*

Asto iru yabe, bata baiño bestea

deungagoak, izana

Astoak euan yabetzat
atxurlari esku-eutsia,
t'eguneko yanaria
uí da astoarentzat;
nai leuke onek beretzat
yango dauena ugari;
baia geure atxurlari
orék ez deutso emoten,
t'orégatik eroaten
dau gosea ondo saí.
—Ai, ai—diño—, ugazabak
nai aukak beti ni gosez;
asazkaldi on bat pozez
niri noiz elduko yadak?
Ai ta ene gosekadak!
Nik yan-ez au ba-yaroat,
laster egin bear yoat
emengo egotaldia.
Yabe esku-ugaria
nik bein izango ez yoat?
Gero yabeak, salduten
deutso lapikoginari.
Au baíz zan emolari

txaía, eta ez da urten
lazeritik, ez kenduten
astoak gose bizia.
Bestetik ortuaria
iñoiz ostu eroiana
ez dauko ; ez orain yana,
ezta aza baten oía.
Oíegaitik astotxua
ebilen beti ta beti
noiz onen agindupeti
aterako'uan burua
ta ez bizi ain artua.

Salduten dau zorionez,
edo obeto, adinonez,
ta, zelango yabeari ?
Naíugin atsituari
nor ilgo ez dan emonez.
Naíu gordinen azpian,
edo ondurikoen pean,
egunean-egunean,
dabil yoan-etoían,
gosez edo yan gitxian ;
ta bildúez dagoala
noiz berari bere azala
kenduko deutsan bizirik ;
oíegaitik erdi ilik
ta ikaraz bizi dala.
Gerora : —Au—esan euan
kontu onak aterarik—,

—ez beste ugazabarik ;
ze, ba-naioak onelan,
txar bat itzi ba-naieuan,
besteagaz nok deungago.



Bakoitza txit ondo dago
Yaunak yañiko tokian ;
Agan burua itzian
izango dau obeago.

Gizon esku-etsi lanez betea ta adiskide

esan onekoa

Gizon batek, eukazan
gauza guztiak
salduta, egin euan
urè-opil bat ;
ta lur azpian
sartu euan opila
ortu erdian.
Egunean ta egun
yoian zikotza
ikusten ondasuna
edo biotza.
Zeinbat apatxu
emoten deutsan ari !
gero estaldu.
Leiotik dakus batek
zelan urèa
darabilen gizonak
sartu ta atera.
Eta gau baten
kentzen deutso kutuna
ta eroaten.
Oi legez goiz-goizetik
biaraumean

artu nai dau lurpetik
 esku artean.
 Damu gofia !
 Dakus ostu deutsela
 opol oria.
 O zeinbat negar garatz !
 zeinbat aiari !
 zeinbat garbai eskerga !
 ta zeinbat lafi !
 Ez dauka onik;
 ez yan, ez edan daike,
 eta ez lorik.
 Onelan dabilela,
 igarten deutso
 lagunak naibagea,
 eta dirautso :
 —Zer dok, gizona,
 ain ilun ibilteko
 lengotik ona ?
 Zabaltzen deutsa onek
 bere biotza,
 bai esan bere dauen
 damu mingotza :
 —Agertu uréa ;
 epo il nok damuak,
 adiskidea.
 —Zer—dirautso lagunak—,
 au dok guztia ?
 Artu ari bat eta

egik opila.
Sartu lurpean.
Ainbat egingo deua
zein da besteak.



Zekentzañen kaltea
onetan dago :
izan gauza, ez izan,
beti deungaro.
Izanda, lana ;
galdurik, damu ; ta ez
bein ondo dana.

AZERI MATS - GUREA

Lukia baten yoan zan mastuira
egozanean dingilizka mordak.
Aitu-etzkerro, diño : —Ai begira,
eta ze onak !

Oraingo onetan beintzat, bear yoat
ase ta bete nik sabel gosea.
O ze eguna ! ene mats-mordoak !
gaur bai neurea !

Abiadu da. Gero nondik nora
ekingo deutsan mats aek yateko ;
oraingo saltuka egiten dau gora
aoa artzeko.

Gero atzeko oin bien ganean
zutunik yaíri, ta agaitik atxina
igo nai leuke. Zer da azkenean
ak ez egina ?

Bein eginari gitxi eretxirik,
beste askotan abantetan yako,
indaíak, putzak baíro usturik
arapetako.

Guztiz alpeñik izan zan; oñenbat
eze egin-alak ta ezin-eginak
emon-ezkero, ez dau ez lakain bat
ostu aginak.

Ostean gero gure lukitxuak
matsai begira epe doilórean :
—Ez dozak gauza, ez dozak elduak
esaten euan.



*Berein onango gizonen artean !
zerbaitegaitik buruak uratu,
al dana egin, t'ezin dauenean,
atxakiatu.*

KATU ARIMAN BILDUREGIAK

Katu bik,
ya yanik
buruntziko oiġoa,
diġoe
ea ete
dauen yango burdiġa.

Baleie ?
Ez daue :
bildur arima-gauzan.



*Zeinbatek
ez yoek
gauzak ebaten alan ?*

Madril'go itsu bañi-zabaltzailak

Zan une baten geña tin itzal bat
espaiñiakaz frantzesen artean ;
ta ilten euen gizon makina bat
alkartutean.

Izan zan bada, geure malpekadu,
Irun-aldean atake eskergea ;
biok il asko, baita asko galdu,
batak bestea.

Madril'go kale, plaza, basteretan
ebiltzan gero bertako itsuak
paperak saltzen eta zabaletan
geuk eginduak.

Dedañez bada eta tuñunt zañai
ots eraginik, zñoen itsuak :
—Bai, espaiñiak deutsez frantziak
eio buruak.

Bagilearen ogeigañean,
or Irun'etik zetxubait arago
bitzuok ekin eutsen, geu ginean
izan geiago.

Lau mila gizon luñean etxunik
gelditu yakez ; eta bost milari
oratu deutse gureak, eta artunik,
onantz ekañi.

Bertan egoan gizon azartuak
dirautso : —Itsu, eta guretarik
zeinbat il dozak ? ta zeinbat artuak ?
eñen, esa'gik.

Erantzun eutsan geure itsuofek :
—Ori Madril'en ez dok esan bear ;
Paris'ko itsuak ebatziko yoek
artez, nai zear.



*Zerbait egiten gaituezan berbak
or darabilguz beti gora-bera ;
bañtz txikitzen gaituen besteak
ez bein atera.*

Osagila, gaixoa il ezkerro, eremedioa

esan euana

Medikuak
diño bada
il zan gaixoagaitik :
—Au odolak
aterata,
ez zan ilgo onetatik.
Ba-darantzu
an dagoan
batek : —Au lenagotik
zuk agindu
ba-zenduan,
ori zan ondo eiñik.



Astoari
garagaña
il ezkerro ondotik;
biziari
zaña-zaña
yaten emon beařik.

Gizon parasta ta gizon yakina

Gizon parastak esaten
euazan farfuileriak
pitean bein, eta aziak :
—Madril'en nik egun baten
yente guztizko erematen
ta Eregeren aurrean
amar bat kana luzean
saltutu, ta andi-txikiak
ikaraturik guztiak
antxe gelditu zirean.
Zezen bateri Gaztela'n
adar batetik eutsirik,
bildots bat legez geldirik
plaz'erdian euki neuan.
Katamotzak egit'euan
Kataluña'n kalte lartxu ;
mendiz mendi ba-noatsu,
ta zapotzetik artua
dakart erira uzua ;
baita an ito panpartsu.

Ara betean zabalik
ao gustia dauela,
eta adura dariela,
begiai eragin barik,

añiturik, ikararik,
dagoz yendeak entzuten,
ta bañiak itanduten.
Besteari ez nagitu ;
ta alkañen atzean ditu
berbak irabiotuten.
An egozanen artean
bat zan nonbait argiago,
baita zerbait urtenago.
Eta guztien añaean
dirautsaz onez onean
ta zintzo urango itzak :
—Adiskidea, egizak
emen diñokan gauz'orék,
eta nik ta beste onek
eu artuko augu aintzat.



*Zeinbateri onenbeste
esan leikion egiaz
buruak pañaskeriaz
egin andi naiko beste.
—Egin yoat au ta beste
ain uritan en'aldian.*

*Orain bañiz ? Gure erian ?
Epelak, ta gauza ezak.
Egizak emen ; ta ezertzat
artuko aut ikusian.*

Aztu, besteen gauzen igarlaria,
ta bereetan itsua

Aztu guzuía
kartak eio
ta ebagirik
daragoio.
Oni ta ari
igaíten
zer-zer etofí
bear yaken.
Dirautsa Atal'go
mutilari :
—I ezkonduko
az iñondi
neska aberats
zintzoagaz,
lau mila dukat
yaukanagaz ;
aganik baíz
bost ume eder
izango dozak.

Ez dok ezer !
Itxas-aldeko
andreari :
—Ez bildur izan
senañenik :
bost ile bañu
zeur'alboan
izango dozu
oniñoan
aurtemin yatzun
Habana'tik
urten ; ta dator
aberatsik.

Onik onean
bere neska
lañi datorko :
—Ai andrea !
Gure etxea
suak artu dau
sugatetik :
gara galdu.

Aztuak dana
ariturik,
negañez diño

ta gogotik :
—Ene mamaña,
ast'andia
bestena dakit,
ez nirea.



*Zeinbat ipuiñak
artzen ditu !
euren gauzetan
itsu-itsu,
ta bestenetan
yakin argi
zer egin bear
ta zer itzi.*

Bela gaikin txikia, otso gaikiñ andia

ta gizona

Astoak bizkar azurēan
eukan zoritxarēz zauria.
Gauza zan, bai, negargarñia
beleak ekin eutsanean.
Alper ostikadea
ta arantza tzarak egitea.
Astazaina barēz gozozko,
ta belea yaten gogozko.
Asto erukarñia !
Non yagok eure erukia ?
Ikusten egoan otsoa
ze larñ ebilen astoa :
astazainak erukirik ez
ta belea uixatu nai ez.
—Zorigaistokoa ni,
eskupean artu ba-nagi.
Au diño otsoak ez deungero
ze ondo ausmartu ezkerō.



*Gizon gaistagin otsotuak
dagoz ipuññean sartuak,
beti bizi bear ikaraz,
ez gozoz ; ta bai bake txaraz.*

Bela kaltegin txikina, otso erailea
ta gizona

(Ipuin berbera, gauza batzuetan zerbait bestera eginda)

Asto burutzañak bizkañean
eukan alan beañez zuloa ;
ta zan negar eragitekoa
beleak an eragoionean.
Alper ostikadak,
ta alper zirean añantzakak ;
yabea begira bañe-zantzoz,
ta belea yaten gogo-gogoz.
Adi dago lurpetik otsoa
zein estu darabilen astoa ;
yabea bertan ero-erorik
ta yaleari ez ken bat ortik.
—Zorigaldua neu,
diño,—ainbeste egingo ba-neu !
Bai ; egia, otso yabe arek
ori ikusita ilgo induket.



*Kaltegin txikia eroan diteke ;
iltzaila dongea ken beiteke.*

Asto nekeak amaitua ta ila, ta zaldi

biotz - gogoña

Asta emeak pisu geiegi
eroian bizkar ganean,
ta albaintinkaka yoian bideti
arnasa ezin betean,
emen gelditu,
gero igitu,
txarto batean bestean.
Beragaz yoian zalditoari
dirautza onez ta lotsaz :
—Ai zaldi laztan, lagun zamari !
il bear yoat pisuaz ;
yaukat lafegi ;
ezin naiegik
nik onen zama astunagaz.
Afen ta afen, zaldi maitea,
euk izan nizaz eruki.
Arindu'gidak ene kargea,
eutsirik euk atal bati.

Egiten beeustak
emongo deuat
eskerik asko, o zaldi.
Zaldi musturak puñustu tzañak
eginik, ai ! ta entzun ez,
burugin onak lagungin txañak
dirautsa oñi destaiñez :
—Asto ta asto !
Gaisto ta gaisto ;
Irea beti ; besterik ez.
Gogora yoan gura enduken
pisutxu iski bategaz !
bestek eztanda tabaiegiken
ez deuna deus bestenagaz.
Ez yonat ezer
egin emen ler
il aldin or nekeagaz.

Alango baten astoak uko
egin dau egin, bidean.
Yabeak: —Añe ! Yabeak : —Iso !
Yabeak yo, ta alpeñean.
Bertantxe yausi,
arnazaka asi,
astoa il da azkenean.

Asto bagarik bere burua
yabeak ikusi, eta
zaldi muixari aren pisua

emon deutso bizkafera ;
ganetik dala
aren azala ;
au, eratzita, kendua.



*Ondo egin-ik, ondo bai ondo,
zaldi biotz bagakoa.
Alantxe bada yakok emongo
doanari eu lakoa,
ai, bai, gogoña !
ire sendoña,
ta bestena eutsaz, ta oa.*

Leoi - artz auska indargetuak, ta lukia

Leoiak eta artzak bein aurkitu euen
mendian bañuan arditxu galdu bat
deslaimebilena ; baita gura leuken
biak ; bakoitxak beretzat.

Artza nonbait egon lekuz uferago ;
ta leoi jaunari lotsa yagon bagan,
ardi gaixoari esetsi lenago
deutso, il ta bota bertan.

Leoi uzuari ori dakusala
su goritan sartu, ta oñoi eginik,
basteñak guztiak bera dakazala,
gaña dario danetik.

Ez dau onen arin oiñaztañi batek
batetik bestera bidea egiten,
ta il yo dauena, zeinda leoi oñek
deutsan artzari ekiten.

Artz bildurgañiak lazturik uñleak
aoa zabal ta erpak luzaturik,
arpegi emoten deutso, zelan aitxak
olatuai gogorturik.

Batak gogor gogor ta gogor besteak ;
erpaka bat onek, besteak erpaka ;
biak otz-aginka ; indar-putzak biak
alkar apurtu guraka.

Ai ango oíoiak ta desgáioa !
Ango bufuka-auskak, ta apurtzea alkar !
Ez, ez zirudian ez-bada trumoia,
edo luía zala dar-dar.

Onelan luzaro ibili zirean,
arik etal danok ebai, indar-ustu,
ta nekeen nekez etzunik luíean
biok zirean geratu.

Gelditu ezkerro, arik puska baten,
azeri yakina dator ara laster,
ta bien auíean ardia dau yaten ;
eurak baíz ezin ezer.



*Oi ta zeinbat bider auzilari txarai
au yazoten yaken ! Diruak utzitu ;
enkon nastariai eta letraduai,
ezer-ezean gelditu.*

Oĩlar bi pelaskatuak eta gudatuak, geiago

egina ta azpiratua

Oĩlar bik
alkaĩ
ekin eutsen gogorto ;
ta batak
bestea
zuĩau euan galanto.
Goitua
gaixoa
sartu zan ezkutuan ;
ganetsuk
kukuĩuk
egin orma ganean.
Baia, ah !
saiea
goitik etoĩ egaz,
ta arturik
erpakin
eron euan beragaz.

Orduan
tegian
lotu zan agintari,
eroanez
len auspez
zuloan zaía yaí.



Añoak
be-yoak
izango luteraino ;
umilak
gorauak.
Fedeak alan diño.

BASAUNTZ MATSORI-YALEA

Eiztariak basauntza
artuterakotz,
txakuñakaz atzean
arin dañaikoz.
An zan lasteña ;
ta txakuñak lau-oinka,
basauntzak ega.
Geure berna-ariñak
aure-bidea
artu deutse txakuñai ;
baita luzea.
Eta azkenean,
ostendu yake ederto
mats-orí-pean.
Bilduñak eraginda,
an geldi-geldi
dago ezkutadua
or ordu erdi ;
baita ain ixilik,
ze ez ots bat egiten dau
ezta zirkiñik.
Bilduña yoan eta
dakus oría ;
kili egiten deutso

kili bizia.
Andik sabelak
dirautso : —Ei ! ekazak
orako orbelak.
Kili ta kili gero
deutso ekiten
matsoñiai zein ; baiñan
ez da gelditzen.
Ta geroago
dator bina yatera
edo geiago.
—Arerioak, diño,
yon yozak ortik ;
ez doz aen usaiñik,
eta ez otsik.
Yan ta yan bada :
bildurak dok aldia,
dok bere yanak—.

Oñien ibiltetik
gizon argiak
gordeari igarten
deutse tokia.
Arin bai arin
antxe dira guztiak
txakur ta armakin.
Txakur—zaunkak mats—taía
daue uixatu ;
eiztariak su egin

ta luferatu.
Agur basauntza !
Emengoa eginda,
plaust, besterantza !



*Au da esker txar batek
oi dakaena ;
kaltea kalte gane,
noizbait atzena.
Il az, patari?
ez euntsan ik parkatu
mats ongilari.*

Il baten ganeko ama-aizteen negararak,
ta erostarienak

Ama bateri
alaba bat
il egin yakan
gaixoagaz
Erostariak
oi dan legez,
negar egiten
ba-dakardez.
Lau andra dira
ta iletak
egiten dauez,
ta galantak.
Beste alaba
ilen aitzak
ikaraturik,
diño : — « Ama
zelan elduok
negar ezin ;
ta al dau atzeak
ainbeste egin ?

Dirautso amak :

—« Ai alaba !
bien negarék
ez dozan bat.
Gureak ditun
biotzetik ;
baita zindoak
oíregatik
oíren erostak
azal-utsak ;
ta beragaitik
gauza-ezak. »



*Nai gizonakaz
nai Yainkoaz
zeuk biotzetik
egin gauzak.
Kanpo edeía
biotz baga
da bitzuentzat
gauz ustela.*

Ilteko egoan gurasoaren burubide ona ta

ume zintzoro beargilak

Ilteko etsita ya egoan
guraso batek, umeak
auñera ekañi, ta ondoan
dirautsez olango berbak :

—« Ene semeak
guztiz maiteak,
nik laster il bear yoat.

la niretzat ez dozak ezer
mundu onetako gauzak ;
zuentzat ortxe, bai eta laster
itxiko yoadaz danak :

ortxe basteña,
etxe edeña,
eta mastui galantak ».

Baia ez ñeukek nik yoan gura
zeuei au esan bagarik,
onen mastuitan zaintsu atxuña
erabilita zakondurik,

katanañua,
bean sartua,
topauko'zue beterik.»

Andik, guraso au il ezkerro,
aren esanen ganera
semeak lana bero bai bero
egiten abiau dira :
 mastuia atxurtu,
 soiak apurtu,
ta azpiko luñak ganera.

Katanañua ez zan agertu ;
ez eta beste dirurik.
Baia mastuiak alan atxurtu,
eta mats-mordaz beterik,
 euren saria
 irabazia
gonburu deutse ekañirik.

Ganezka bada upakerea
bete daue txakoliñez ;
ta batzuk edan, saldu bestea,
kontuak yota, azkenez,
 seme bakoitxak
 dituzan boltzak
bete dituz uré onez.

Dirautsa bada bat besteari :
—« Ze katanáru oberik ?
Nonbait aiteak au iragaíri
nai yeuskuan, ez besterik.»



*Ea, gizonak !
lan on zakonak ;
onexegaz aberatsik.*

Isopo agurea yolastuten olgetan

Isopo txintxilan
ebilen poz-pozez
mutilen artean
mutil balitz legez.
Auréko guztiak
dagoz an baéka
zar bat mutil ikusita.
Agure yakinak :
—« Gazteak, dirautse,
Zeri zuek baé
egin deutzazue ?
Nonbait ni txintxilan
nakutsuelako
ta ume eginik Isopo ?
A zoroak ! Betor
sagita-arkua.
Ara emen, ta esan,
zegaitik kordela

onen nasai daukan ?
Gauza ez dalako
beti au tiran ba-dago ».



*Galdu egingo da
gizona, ta belan,
beti ba-diñardu
gogor, beatean.
Nasaitu beiteke
tingi bat aldian
osasuna iran daian.*

1870

1871

1872

1873

1874

1875

1876

1877

1878

1879

1880

1881

1882

1883

1884

1885

1886

1887

1888

1889

1890

1891

1892

1893

1894

1895

1896

1897

1898

1899

AURKIBIDEA

Itzaurea	5
Ipuiñen aurreko yakin-beña	19
Ama-alaba, kardantxilo eder kantaria miruak ilten ikusiak	20
Zaldi afoa ta asto apaia	23
Azuafa ta luki min-artua	25
Ugazabandra eragingilegia, eta neskatila otsein oilar- iltzailak	27
Afantzaile uste utsetakoak	29
Erbi bizitzeaz gogaituak eta ugaraxioak	31
Agure gogaitua ta balbe txara	33
Asto iru yabe, bata baiño bestea deungagoak, izana ..	34
Gizon esku-eutsi lanez betea ta adiskide esan onekoa.	37
Azeri mats-gurea	40
Katu ariman bilduregiak	42
Madril'go itsu bafi-zabaltzailak	43
Osagila, gaixoa il ezkerro, eremedioa esan euana	45
Gizon parasta ta gizon yakina	46
Aztu, besteen gauzen igarlaria, ta bereetan itsua	48
Bela gaiskin txikia, osto gaiskila andia ta gizona	51
Bela kaltegin txikina, otso erailea ta gizona	52
Asto nekeak amaitua ta ila, ta zaldi biotz-gogofa	53
Leoi-artz auska indargetuak, ta lukia	56
Oilar bi pelaskatuak eta gudatuak, geiago egina ta azpiratua	58
Basauntz matsofi-yalea	60
Il baten ganeko ama-aizteen negafak, ta erostarienak.	63
Ilteko egoan gurasoaren burubide ona ta ume zintzo- ro beargilak	65
Isopo agurea yolastuten olgetan	68

SANEURIA: 2,00